UDA / 2019

# KULTUR AGENDA



Aitzoain
Añezkar
Ballariain
Berriobeiti
Berriogoiti
Elkarte
Larrageta
Lotza
Oteitza

# BERRIOBEITI

**Azaleko argazkia:** “Babo Royal” kale-ikuskizunaren irudia, Ganso & Cia taldearena (abuztuak 2, ostirala, 18:30ean, Larragetako pilotalekuan).

AYUNTAMIENTO BERRIOPLANO
BERRIOBEITIKO UDALA

Argitaratzailea: Berriobeitiko Udala
L.O.: NA 253-2015
Doan banatzen da

Casa de Cultura
MARIA DE MAEZTU
Kultur Etxea

Editorea: Berriobeitiko Udala
Doako zabalpena

## ›› OHARRAK

**PUNTUALTASUNA**
Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

**SOINU-SEINALEAK**
Aretoan sartzerakoan deskonektatu beharko dira.

**GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK**
Debekatuta daude.

**JANARIAK ETA EDARIAK**
Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

**ITZULTZEAK**
Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

**SARRERAK**
Zenbakidun sarrerak.

## ›› TXARTEL SALMENTA

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean. Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko**.

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

**LEIHATILAN**
(Kultur Etxeko Atezaindegian). Ikuskizun bakoitza hasi aurreko ordubete lehenagotik.

**ALDEZ AURRETIK**
**www.berrioplano.es** webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara

## ›› KULTUR AZPIEGITURAK

**KULTURA ZERBITZUA**
Udaletxean
**Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** cultura@berrioplano.es

**MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA**
Iturribidea, 1. Artika.
**Tel:** 948 38 32 54
**Kafetegi-Taberna**
**Tel:** 948 78 31 57

**LIBURUTEGI PUBLIKOA**
Maria de Maeztu Kultur Etxean
**Udako ordutegia:** 8:30etik 14:30era. Ekainaren 17tik irailaren 13ra, barne
**Tel:** 948 38 26 22
**Posta elektronikoa:** bibliarc@cfnavarra.es

**ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA**
**BERRIOBEITI**
Nuestra Señora de la Purificación, 11.
**Ordutegia:** 10:00etatik 22:00etara.
**Tel:** 948 91 04 23 (kafetegi-taberna)

**ARTIGUNE I**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

**ARTIGUNE II**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 26
**Informazioa:** 948 30 31 29

**MUSIKA ESKOLA**
María de Maeztu Kultur Etxean **Tel:** 616 72 52 18
**Posta elektronikoa:** orreagamusika@gmail.com

**KONTZEJUEN ETXEAK**
**AITZOAIN**: Oronsuspe auzoa k/3

**AÑEZKAR**: San Andres k/ 6
**Tel:** 618 77 84 61

**ARTIKA**
Kontzeju Etxea San Marcial K/ 9
**Tel:** 948 38 37 93
"María Domínguez" Gizarte-Etxea
María Domínguez K/3
**Tel:** 948 38 37 93

**BALLARIAIN:** San Pedro k/ z/g

**BERRIOGOITI:** Santa Eulalia k/39
**Posta elektronikoa:** concejoberriosuso@yahoo.es

**BERRIOBEITI:** Kale Nagusia k/ 2

**ELKARTE:** Purificación k/ 16

**LARRAGETA:** San Esteban k/ z/g
**Tel:** 948 30 21 59

**LOTZA:** San Joan k/ z/g
**Tel:** 690 68 68 50

**OTEITZA:** San Joan k/ 6
**Tel:** 651 65 83 14

## ›› KULTUR ETXEA, FACEBOOKEN

**JARRAIGUZU!**

Kultur Etxea facebooken

## ›› LIBURUTEGIA UDAN

**UDAKO ORDUTEGIA**

Artikako liburutegi publikoa 8:30etik 14:30etara dago zabalik uda partean (irailaren erdira arte). Zerbitzuak: liburuak eta ikus-entzunezkoak mailegutan uztea; aldizkariak eta eguneroko egunkariak; internet eta posta elektronikoa; arreta eta aholkularitza uneoro.
Artikako liburutegi publikoa Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean dago sartuta, eta katalogoa **www.navarra.es** webean dago kontsultagai.

**Ekainaren 17tik irailaren 13ra bitartean**
**Udako ordutegia:**
08:30- 14:30
**bibliarc@navarra.es**
**948 38 26 22**

## ›› 2019-2020ko UDAL IKASTAROAK

**IZEN-EMATEA** / IRAILAK 4 - 10

**Helduendako jarduerak:** zumba, zumba & strong, yoga, pilates, swing, gimnasia aktiboa eta judoa.
**Haur jarduerak:** jolasa mugimenduan, euskaraz mintzatzeko jarduerak A ereduko ikasleentzat, Goazen!-ekin dantzan, judoa, pilota, gimnasia erritmikoa, eskalada, euskarazko sormen jarduera-anitzak eta kirol-anitza.
**Gazte jarduerak:** gune dinamizatuak eta eskola-laguntza Artikan eta Berriogoitin.

Kontsultatu udal eskaintza osoa eta, era berean, gure udalerriko beste erakunde batzuek Udalarekin elkarlanean antolatzen dituzten proposamenak, hori guztia abuztuan zure postontzira iritsiko den foiletoan bilduko baita.

**EMAZU IZENA!**
**Irailaren 2tik 6ra, jarduerak probatzeko aukera izanen duzu.**

Telefonoz
012 – Infolokal
**Izena emateko ordutegia:**
8:00 - 19:00
**Ordainketa:** txartel bidez



## ›› HERRIKO FESTAK

**LARRAGETA** / ABUZTUAK 2, 3 eta 4

**BERRIOGOITI** / ABUZTUAK 23, 24 eta 25

**AÑEZKAR, ELKARTE ETA ARTIKA** / IRAILAK 6, 7 eta 8

**LOTZA** / IRAILAK 13, 14 eta 15

## ›› ZENDEAREN EGUNEKO BAZKARIA (LARRAGETA, IRAILAK 28)

**TXARTELAK** / IRAILAREN 16tik 20ra

Urtero bezala, Zendearen Eguneko ekitaldi nagusia senidetasunezko bazkaria izanen da; aurten, Larragetan paratuko den oihalpean eginen da. Sarrerak Udaletxean izango dira salgai irailaren 16tik 20ra bitartean.

**Erroldatuentzat**
**Non:** Bulego orokorretan, Berriobeitiko Udaletxean (Udaletxe plaza,1)
**Ordutegia:** 09:00-14:00
**Telefonoa**: 948 30 31 29
**Prezioa:** 18 euro, helduendako menua / 10 euro, haurrendakoa



## ›› ZENDEAREN EGUNA

**LARRAGETA** / IRAILAK 28

Zendeako 10 herrien senidetasunezko jaia irailaren 28an eginen da Larragetan. Foiletoa etxez etxe banatuko da programazioaren berri emateko.

# PROGRAMAZIOA ABUZTUA 2019

## 02 OSTIRALA

### KALEKO ANTZERKIA

## "Babo Royal"

GANSO & CIA

**Larragetako pilotalekua**
**Ordua:** 18:30
**Sarrera:** librea
**Adina:** publiko guztientzat
**Iraupena:** 60 minutu

50 metro karratuko inperio bat, errege aldartetsu bat eta trobadore bitxi bat. Bitxikeria da nagusi lurralde txiki horretan. Tronpeta-hotsak entzuten dira, banderatxoak airean daude. Has bedi jaia! Mundu guztia dago gonbidatua errege-torneoan parte hartzera! Erregearen nahia fantasia bihurtu beharko da! Hierarkiak alderantzikatu egiten dira Babo Royal jokoan; aurreikusteko moduko gauzek harrituko gaituzte, eta zentzutasuna eta normaltasuna debekaturik daude.



## 22 OSTEGUNA

### RAFTING

**Artika Berriko Plaza**
**Adina:** 14 urtetik gora
**Prezioa:** 20 euro
**Izen-ematea:** 012an, uztailaren 22tik abuztuaren 6ra

RAFTING ateraldia gazteentzat Murillo de Gállegora.



## 23 OSTIRALA

### KALEKO ANTZERKIA

## "Rock Star"

TDIFERENCIA

**Berriogoitiko pilotalekua**
**Ordua:** 18:30
**Sarrera:** librea
**Adina:** publiko guztientzat
**Iraupena:** 90 minutu

Rocka ugari, besta giroa eta dibertsio handia familia guztiarentzat. Pertsonaia eroen eskutik, dantzan eta kantuan jarriko gaituzte jendeak parte hartzeko moduko kontzertu honetan, azken 40 urte honetako pop eta rock kanturik ezagunenen bidez.

90 minutu, belaunaldien arteko martxari eskainiak, zure seme-alabei erakusteko oraindik ere badakizula dantzan. Queen, Rolling Stones, Alaska, Madonna, Village People, Spice Girls, AC/DC, Kortatu, Ramones, Beyoncé eta beste batzuen abestiak. Egin dezagun dantza!



## 01 IGANDEA

HERRI LASTERKETA

### IV. Artika Challenge

KORRIKOLARIS ARTIKA KIROL KLUBA

Korrikolaris Artika kirol klubak laugarren Artica Challenge herri lasterketa antolatu du. Probak 7,14 km izanen ditu, eta % 18,8ko malda maximoa. Artika Berriko María Domínguez plazatik abiatu eta Berriobeitin nahiz Berriozarren barna joanen da. Bi maila daude: absolutua, 10:00etan hasita, eta haurrak (aurre-benjaminak, benjaminak, kimuak eta infantilak), 11:30ean. Argibideak: **Facebook** eta Artikako Korrikolaris klubaren **twitterra**.



**María Domínguez Plaza (Artika Berri)**
**Ordua:** 10:00
**Antolatzailea:** Korrikolaris Artika Kirol Kluba
**Laguntzailea:** Artikako Kontzejua

## 06 OSTIRALA

KALEKO ANTZERKIA

### “La máquina y yo”

CIRCO DABITXI

**Añezkarko pilotalekua**
**Ordua:** 17:00
**Sarrera:** librea
**Adina:** publiko guztientzat
**Iraupena:** 45 minutu



“La máquina y yo” lanak makina arraro baten eta pertsona xume baten arteko harreman bitxia erakutsiko digu, keinuen bidez. Bata, pertsona sortzailea; bestea, makina eraldatzailea. Pertsona detailezalea; makinak, berriz, handira jotzen du. Nork edo zerk harrituko gaitu gehien? Vintage moldeko zirku ikuskizuna; eszenografia mugikorra da, bai eta saioaren ardatza ere, emanaldiaren zati bizia eta aktiboa baita.

## 08 IGANDEA

**KALEKO ANTZERKIA**

### “Felpudoman y Escobilla”

CIRCO LA RASPA

**Elkarteko plaza**
**Ordua:** 18:00
**Sarrera:** librea
**Adina:** publiko guztientzat
**Iraupena:** 55 minutu



Hementxe daude galaxiako superheroi onenak, paregabeak, berdin gabeak. “Felpudoman y Escobilla” dira. Bikote bikaina da. Indarrez beterik, gure etxea babestuko dute, germenak azpiratzeko eta zikinkeriari nagusitzeko. Biak izanen dira aukeratuak superheroi guztien ordezkariak izateko. Galaxia hau garbitzeko eginbeharra dute, arras zikina baitago! Zuraspin Maisuaren ikaslea da Escobilla eta tornu-lanaren teknika garatua erakutsiko digu zoko-moko guztietara iristeko. Felpudoman, berriz, gizon sukoia da, eta egunero bere etsairik makurrenari egiten dio aurre (suari), egunero zapata-zolak ederki garbiak uzten segitzeko.

## 09 eta 10 ASTELEHENA eta ASTEARTEA

**TAILERRAK**

### Gazte partaidetza

**Artika eta Berriobeiti**
**Hilak 9:** Artigune III (Artika)
**Hilak 10:** Erabilera anitzeko eraikina (Berriobeiti)
**Adina:** 12 urtetik gora

Aisiarako lokalik nahi al duzu? Jarduera gehiago Berriobeitiko gazteentzat? Bizitza komunitarioan parte hartu nahi? Zatoz eta eman zure iritzia, kontuan hartuko baita denon artean Berriobeiti aldatzeko!



## 16 - 27 iraila

ERAKUSKETA

### Argazki ikastaroa



**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordutegia:** 16:00etatik 21:00etara. Larunbat eta jaiegunetan, ikuskizun orduetan

Erakusketan ikusgai daude Artikako Kontzejuak antolatutako bi ikastaroetako parte-hartzaileek egindako argazkiak.

## 13 OSTIRALA

KALEKO ANTZERKIA

### "Tutti-Magia"

MAGO HODEI KONPAINIA

**Lotzako plaza**
**Ordua:** 18:30
**Sarrera:** librea
**Adina:** publiko guztientzat
**Iraupena:** 70 minutu

Hodeik koktel ezin hobea ekarriko digu arratsalde paregabea pasatzeko. Sekulako nahasketa da, luzaroan gure gogoan gordeko duguna. Izan ere, "Tutti-Magia" saioak magiaren munduko diziplina guztiak erakutsiko dizkigu: besteak beste, gauzakien manipulazioa, mentalismoa edota magia-saio arriskutsuak eta egoera komikoak. Ikusleek parte hartzeko moduko ikuskizuna da, publikoa magoa bezain protagonista izanen baita. Magiaren munduan ederki murgiltzeko esperientzia da; segi magoaren bideari, eta gogotik irri egiteaz gain, etengabe harritua egonen zara. Etorriko al zara?

